



Beste 30 urteren bila!

Giro ederrean eta herritarrekin batera ospatu du TXINTXARRI aldizkariak hiru hamarkadako ibilbidea / 2-3

BEÑAT ARROYO

Bizitza ospatzeko, mugarik ez

Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango dute lasarteoriatarrek igande honetara arte, hilak 8 / 8

Sasoetakoak izango dira auzo bateko aurtengo azken jaiak; egitaraua "parte hartzailea" izango da / 4

'Gozatu' kanpaina abiatuko du Aterpeak. Ohi bezala, bezeroen fidelotasuna saritzea da helburua / 5

Euskal presoek eskubideen alde egiteko kalera atera dira Sarek egindako Azken Ostiralean / 6

Hilaren 17an egingo du lehen saioa irakurle txokoak; Aintzane Usandizagak dinamizatuko du / 9

Lasarte-Oriako Udalak 2023. urteko kirolari onenen sarietarako hautagaiak jasotzeko epea ireki du / 10

Eguzki Goxokis Goxua taldeak garaipena erdietsi du kadete mailako lehen hitzorduan / 11

Progresiboen hilabetea

2x189€
mó betaurreko
progresibo


batzuk eguzkitakoak izan daitezke



R.P.S. 917/20

Kontsulta, optikan kampaniaren ezaugarriak.

MULTIÓPTICAS

Tel.: 943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   



Herritarrekin ospatu ditugu 30 urteak

TXINTXARRI-k 30 urte bete zituen hilaren 1ean, eta urteurren hori herritarrekin ospatu genuen bertan lan egiten dugunok; egun hunkigarri bezain ederra izan zen. Porrotx pailazo eta lagunaren bisita jaso zuten herriko txikienek lehenik, eta ederki pasa zuten sudurgorriarekin. Haurrek herriko aldizkariari eskainitako marrazkitxoek trukean, gainera, oparitxo bana jaso zuten pailazoaren eskutik. Eguerdiaren berriz, Xumela koruako eta Oaintxe in deu txarangako kideekin, kantu eta dantzan aritzeko tartetxoak izan genuen. Eta, nola, sabelak ere bete genituen; ospakizun bat ez baita ospakizun, tartean jatekorik ez bada. Horrela, kantari eta musikariek gidatuta Jalgi Kafe Antzokian bildu ginen, pintxo-pote atsegin bat egiteko.

Tartean, Beñat Arroyo herritarrari esker, argazki erraldoi bat ateratzeko aukera ere izan genuen; hori da aldizkari honen azalean ikus dezakezue. Eguraldia lagun, bikaina izan zen ospakizuna, baina, ederrena, zuokin batera egin izana. Mila-mila esker guztioi; elkarrekin, gutxienez beste 30 urte baietz!



Haur eta heldu, denek elkarrekin abestu zuten Xumelako eta Oaintxe in deu-ko lagunekin batera. TXINTXARRI



Gozatu ederra hartu zuten gaztetxoek Porrotx pailazoarekin. TXINTXARRI



TXINTXARRI-ri buruzko marrazki eder ugari ekarri zituzten haurrek. TXINTXARRI





Ez da ibilbide makala TXINTXARRI aldizkariak gaurdaino egin duena. 30 urte bete berri ditu, eta ederki ospatu; herritarrekin. 1993. urtean sortu zutenek, Lasarte-Oria euskaldunago bat amets abiatu zuten, elkarlanean, proiektua. 30 urte geroago, berri, hemen jarraitzen dugu, herriko etxe guztietara gure hizkuntza, euskara irits dadin ahaleginetan. Urte hauetan guztietan joan dira batzuk, eta besteak etorri. Baliabideak justu eta larri, baina denon ilusio eta indarrari esker lortu dugu honaino iristea.

Hori, aldizkaria osatzen dugunon lanari esker izateaz gain, zuei esker ere bada, noski. Nora eramango gintuen bideak zuek gurekin bat egin izan ez bazenute?

Eskerrik asko, lankide, irakurle, kolaboratzaile, babesle... herritar! Egunez egun hainbeste maite dugun lan hau, gertutasunez, euskaraz eta zuekin egiten jarraituko dugu; ziur baikaude hemendik aurrera ere elkarren ondoan izango garela. Jarraituko dugu izaten elkarren lokarri. Bagoaz beste 30 urteren bila, bazatozte? Goazen!

TXINTXARRI-ren urteurrenaren harira sortu dugun material guztia kanal honetan bildu dugu:



Irudian, gaur egun TXINTXARRI aldizkarian lanean ari diren kideetako batzuk. TXINTXARRI



Xumela koruko eta Oaintxe in deu txarangako lagunak arduratu ziren eguerdia girotzeaz. TXINTXARRI



Sabelak betetzeko tartetxoa ere izan zen; mokadu ederraz gozatu zuten bertaratutakoek, Jalgin. TXINTXARRI





LASARTE-ORIA
UDALA

EUSKARA
BATZORDEA



1993 2023

Zorionak eta mila esker txintxarri, 30 urte hauetan herritarrek euskaraz informatzen egindako lan erraldoiarengatik

Sasoetakoak, aurtengo azken auzoko jaiak

Sasoetako kale eta plazetan ospatuko dituzte auzoko jaiak, "gehien gozatzen" duten tokietan. Virgen de Guadalupe Extremadura Etxea omenduko dute aurten antolatzaileek. Jarduera "parte hartzaileak" prestatu dituzte herritar guztientzat

Txintxarri

Gaur, hilak 6, Sasoetako jaiak hasiko dira, ohi bezala, txupinazo eta pregoiarekin. Aurtengo omenduak izango du ospakizunei ekiteko ardura, Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeak, Andatza plazan, 18:00etan. "45 urteko ibilbide oparo eta auzoari ematen dion guztiagatik" aintzatetsiko du festen antolatzaileak, Sasoeta Sasoian auzo elkarteak. Programa "anitza eta parte hartzailea" prestatu dutela nabarmendu du eragile horretako lehendakari Jose Antonio Rey-k, 40 kolaboratzaile eta Lasarte-Oriako Udalarekin. Azken horrek 3.190 euro eman dizkio, antolaketa gastuak finantzatzeko.

Duela hamarkada batzuk oso ezagunak ziren Sasoeta auzoko festak, "sanpedroak baino gehiago", Reyren hitzetan. Jaizkibel izeneko eragile bat arduratzen zen jaiak antolatzeaz eta hori egiteari utzi zionean desagertu



Udaleko nahiz auzo elkarteko ordezkariak, egitaraua aurkezten. TXINTXARRI

egin ziren, duela sei urte beste elkarte bat eratu (Sasoeta Sasoian) eta berriz ere ospakizun berezi horiei ekin arte. Garai horietako loria eta festa giroa berreskuratzea da elkarte horren helburua eta urtez urte gero eta

egitarau erakargarriagoa prestatzen du.

Auzo elkarteko lehendakariarekin batera izan dira idazkari Ivan Muñoz, Agustin Valdivia alkatea eta udaleko Festak sailburu Txus Alonso. Programa

eskuetan hartu eta zenbait jarduera izan dituzte hizpide, 80. hamarkadako musikan girotutako gaua, esate baterako. Metereologiari buruz ere hitz egin dute, ona dela astebururako aurreikuspena. "Beti esaten dut gauza bera, horrelako ekimenen arrakastaren %80 eguraldiaren araberakoa izaten dela".

Festa, kale eta plazetan

Arestian esan bezala, egitarau oparo eta parte hartzailea prestatu dute auzo elkarteko lagunek. Aldizkari honetako *Agenda* atalean jaso dugu oso-osorik, 15. orrian. Bihar arratsaldeko helduen danborrada izan da Reyk nabarmendu duen jardueretako bat. "Auzoko plaza guztiak zeharkatuko ditu: Andatza, Oriamendi, Aralar, Uzturre, San Marcial, Adarra eta Jaizkibel". 80 pertsona astinduko dituzte danbor eta kupelak, hiru bat orduz. "Tokirik gabe gaude aspalditik baina nire sakelako telefonoak kea botatzen jarraitzen du, herritar askok nahi dute parte hartu. Hala ere, kide kopurua mantentzearen alde egin dugu, auzoko danborradak bere esentzia gal ez dezan". Adin nagusikoak baino egun bat geroago ariko dira haurrak, 17:00etatik aurrera. Saioa amaitzean oparixko bat jasoko dute Marbell ile apaindegiko kideen partetik.

Mahaiaren bueltan eseri, bapojan eta elkarrekin topa egiteko aukerarik ere ez da faltako. He-

rri bazkaria egingo dute bihar, 14:30ean, Andatza plazan: paella. Otoradura animatzen diren herritarrek Bagri liburu dendan eros ditzakete txartelak. Horri lotuta, bazkalosterako mus, igela eta xake txapelketak prestatu dituzte, sabela bete osteko logurari aurre egin eta festa giroari eusteko. Txoko zein Txindoki tabernetan eta Andatza izango dira, hurrenez hurren. Bestalde, gaurko eta biharko gauetan *food truck* delako bana jarriko dute, janaria eta edaria saltzen dituen furgoneta ibiltari horietako bat hain zuzen, kontzertuez eta 80. hamarkadako musika gauaz gozatzerako doazenek indarrak berreskura ditzaten.

Festetako azken egunean, igandean, patata tortilla txapelketa aurrera eramango dute Andatza plazan. Parte hartu nahi dutenek 11:00etatik 12:30era eraman beharko dituzte jakiak bertara. Epaimahai profesional batek erabakiko du irabazlea nor izango den. Arratsalderako haurren danborrada (17:00etan hasiko da, Andatza enparantzan), errifan zozketa eta sari bana-keta eta amaierako traka antolatuko dituzte.

AUZOKO KALE ETA PLAZA GUZTIAK IGAROKO DITU HELDUEN DANBORRADAK

Juan Mari Cerezo omenduko dute

Sasoetako jaietako ekitaldi hunkigarrietako bat bihar gauean izango da, hilak 7, Andatza plazan, 22:30ean. Herriko zenbait musikari elkartuko dira 40 de Fiebre musika taldeko gitarra jotzailea zen Juan Mari Cerezo omentzeko; 2003ko maiatzaren 12an hil zen, auto istripu batean, Errekaldeko bidegurutzean. Boskote honek emango du kontzertua: Jon Urreta del Campo (Despervicioko abeslari ohia), Eneko *Butt Head* (Despervicioko baxu jotzaile ohia), Javi Mora (The Noise Makers taldeko gitarra eta ahotsa), Aimar Altuna (The Noise Makers taldeko batera jotzailea) eta Rafa Lopez (40 de Fiebre taldeko baxu jotzaile ohia eta talde horren sortzaileetako bat).

Aipatu bost musikari horiek Lasarte-Oriako talde historiko horren erreperatorioko abestiak joko dituzte. Ondoren, The Noise

Makers-en txanda izango da: 80. hamarkadako punk eta rock abesti ezagun asko bertsionatuko dituzte Andatza plazan bertan, 23:15etik aurrera.

Hirugarren omenaldia

Rafa Lopezek eta Juan Mari Cerezok eratu zuten aipatu taldea joan den mende amaieran; 2000. urtean maketa bat argitaratu zuten. Hori izan zen laukotearen (Bittor eta Unai ziren beste bi kideak) garai mugituena, ia astebururo jotzen baitzuten. Hiru urte geroago, Cerezo hil zenean, jotzeari utzi zioten. Lehen aintzatespen ekitaldia urtebete geroago egin zuten, eta, bigarrena, 2010ean, lasarteoriatarren heriotzaren zazpigarren urteurrenean. Urte horretako kronikan TXINTXARRI-k jaso zuenez, Lasarte-Oriako rock giroan oso ezaguna zen Cerezo; berak sortzen zituen abestiak.



40 de Fiebre taldearen kontzertu bat, 2002ko irailaren 27an. Juan Mari Cerezo eskuin aldean ageri da, gitarra jotzen. TXINTXARRI



NEURE KABUZ
AIZPEA AMAS

Zorionak!

30 urte. Azkar esaten da. TXINTXARRI-n argitaratutako gertakizun guztien lekuko ez, baina garaikide izan naiz, beraz, gaztaroa utzi eta helduaroan sartuak izango garela esan beharko dugu, batzuk 40 urtetatik 30etatik baino gertuago gaudela onartuta.

Urteurren horren ospakizunen barruan, ibilbide horretan publikatutako azalen erakusketa jarri dute Jalgi Kafe Antzokian. Lerro hauen bidez, erakusketara joateko gonbidapena luzatu nahi diet herritar guztiei, Lasarte-Orian barrena, denboran bidaia bat egin ahal izango baitute.

Herriaren eraldaketa erakusten dute zenbait azalek. Urte batzuk ditugunok garunean iltzatuta geratu zaigu garai bateko Okendoren irudia, frontoiarekin, petrillarekin, eta, nola ez, palmondoarekin. Nerabe ginela, lagunarengandik metro bateko distantzia mantenduta dantza politik egindakoak gara haren alboan. Froilan Elesperen hilketa, Euskaldunon Egunkariaren itxiera, atxiloketak... Duela ez han gutxi arte barerik eta bakerik ez zela oroitarazten dizkiguten gertakizunak. Uholdeak eta pandemia bat ere bildu ditu TXINTXARRI-k. Eta nola ez, euskarak izan du tartea: Euskararen Maratoia, Korrika...

Azal guztien artean, ordea, bada bat arreta piztu didana: *Txin-txarriren trapu zaharrak* (1997). Argazki erreportaje baten bidez, aldizkaria argitaratzeak atzean duen lana azaleratzen dute hainbat orritan: aldizkariaren edukiak erabaki, informazioa bildu, komertzial lanak egin, telefonorik gabe geratzeak sortutako buruhausteei aurre egin (pentsa egun Internet gabe geratuko bagina), argazkiak atera eta argazki dendara eraman, maketatu...

Jada ez dago argazki dendara joan beharrik aldizkari bat publikatzeko. Internet eta digitalizazioak kazetariok lana erraztu badi-gu ere, astean behin euskarazko aldizkari bat argitaratzeak atzean lan handia dauka oraindik ere. Eta batik bat sortu diren erronka eta zailtasun guztiak gainditu eta 30 urteren ondoren oraindik ere gure postontzietan aurkitu ahal izateak. Zorionak TXINTXARRI egin duzuen eta egiten duzuen guztiei euskara eta Lasarte-Oriako berriak gure etxeetara ekartzeagatik. Bejondeizuela!

'Ezmezean' maketa osorik entzun daiteke, plataformatan

Maialen Aristegi herritarraren lana fisikoki eros daiteke: kasetak 5 euro balio ditu, CDak 6, eta, biek batera, 10

Txintxarri

Maialen Aristegi kantautore gazteak (Lasarte-Oria, 2000) *Ezmezean* izeneko lana argitaratu berri du. Lau abestik osatzen dute: *Udazkena Gasteizen*, *Sorgin-gurpila*, *Bilatu gabe aurkitutakoak* eta *Errauts apur bat*. YouTube, Soundcloud edota Spotify plataformatan entzun dezakete herritarrek aipatutako maketa hori.

Horrez gain, formatu fisikoan eros dezakete. Kasetak 5 euro balio ditu, CDak 6, eta, biek batera, 10. Interesa dutenek Aris-

tegiren Instagram (@txatxama-txalinatxu) edota Twitter (@ezin_esan) kontuen bidez jar daitezke berarekin harremanetan, edo, bestela, kalean berarekin topatuz gero, zuzenean eskatu.

Aristegik grabatu duen lehen lana da *Ezmezean*. Uistin Records zigiluarekin argitaratu du eta maketa ilustratzen duen irudia Maialen Uribe lasarteoriarrak diseinatu du. Maketazioa eta grabazioa Hugo Iñigok gauzatu ditu, eta, nahasketa, Aristegik berak eta Aztiak.



Aterpea merkatarien elkarteko zenbait kidea, udaleko ordezkariekin batera 'Gozatu' kanpaina aurkezten. TXINTXARRI

Gozatu kanpainarekin sarituko dituzte bezeroak

Ekimen berri bat abiatuko du Aterpea elkarteak: 'Gozatu'. Hilaren 16tik 28ra izango da martxan, eta ohi bezala, bezeroen fideltasuna saritzea izango da helburuetako bat. Lasarte-Oriako Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzako Turismo sailarekin batera prestatu dute

Txintxarri

Hilaren 16tik 28ra Aterpea merkatarien elkarteko establezimenduetan erosketak egingo dituzten herritarrek sariak eskuratu ahal izango dituzte; hala iragarri dute Aterpeako ordezkariak, gaur, prentsaurrean.

Erosketa egitearekin batera, txartel bat jasoko dute herritarrek. Horieta batzuk sari zuzena izango dute, eta besteek, berriz, erosketa bonuen zozketan parte hartzeko izango dira. Hala, sari zuzenarena egokitzen zaienek, Aterpea pintxo jasoko dute sari gisa; txartelak berak zehaztuko die herriko zein tabernatan kon-

tsumitu beharko duten. Gainera, antolatzaileek zehaztu dutenez, taberna bakoitzak erabakiko du zein pintxo eskainiko dion sari-dunari, eta, noski, tabernan bertan kontsumitu beharko dela ere argitu dute. Mokadutxo, doakoa izango den arren, horrekin batera edatekoa eskatzen dutenek, azken hori ordaindu egin beharko dute. Iraungitze data ere izango dute tiket horiek; azaroaren 5a baino lehen erabili beharko dituzte. Hauek dira ekimenarekin bat egingo duten tabernak: Herriko Etxea jatetxea, Arima gastroteka, Viña del mar kafetegia, Buenetxea taberna, Arkupe

taberna, B plana kafetegia, Hiru Aldeta taberna, Avenida taberna. Honako datu hau ere eman dute; guztira 9.450 tiket prestatu dituzte, eta, horietatik 800 izango dira sari zuzena izango dutenak.

Erosketa bonuen zozketa

Sari zuzenarena ez, baina beste-lako txarteltxoak lortzen dutenek, aldiz, euren datuekin bete beharko dute papertxo hori, eta erosketa egin duten komertzioak izango duen kutxatxo batean botako dute; horrela, erosketa bonuen zozketan parte hartuko dute. Guztira 2.000 euro banatuko dituzte.

ELKAR-EKIN LANEAN: ZAINTZA PROIEKTUA



- PZ2 MENDEKO PERTSONEI GIZARTE-ERAKUNDEETAN GIZARTE ETA OSASUN ARRETA EMATEA (370 ordu)
- SUKALDARITZA MODULUA (60 ordu)
- GARBIKETA MODULUA (40 ordu)
- Oinarritzako gaitasunak (25 ordu)
- Gaitasun soziolaboralak (15 ordu)
- Praktikak enpresetan: (Gutxienez 80 ordu). Beka 9€/egun

Aurreikusitako datak: urritik martxora

Orduetgia: 09:30 / 14:30, astelehenetik ostiralera

Lanbide kodea: IP23200295

Informazio gehiago: 943 47 40 83 / 722 168 951 (Estibaliz Zugasti)





Elizatze plazatik abiatu ziren manifestariak. Jabi Gallaga, Ibon Fernandez eta Aitzel Iriondo etxeratzeko eskatu zuten. TXINTXARRI

Kaleetara itzuli dira, presoan eskubideen alde

Irail amaieran itzuli da Azken Ostirala: Lasarte-Oriako Sarek antolatutako mobilizazioan 75 bat pertsonak parte hartu dute. Euskal preso, iheslari eta deportatu guztien eskubideen aldeko aldarriak zabaltu dituzte Elizatze plazatik abiatu eta Okendora iritsi arte

Txintxarri

Elizatze plazan elkartu ziren manifestariak irailaren 29an, 20:00etan. Pankarta eusten ari ziren hiru lagunekin batera, jada, bertan zeudenei beste batzuk gehitu zitzaizkien hurrengo minutuetan. Sareren irudi berria duten banderolak eta pankartan agertzen diren hiru presoan –Jabi Gallaga, Ibon Fernandez Iradi eta Aitzel Iriondo– kartel bana eskaini zizkieten eraman nahi zituztenei. Hamar bat minutu geroago abiatu ziren Kale Nagusian barrena eta biribilgunera iristean, behera egin zuten Geltoki kaletik Okendora bidean. Plazan biribilean jarri, eta Pili Kastresanak irakurrita, Sarek eta Etxeratek adostutako idatzia entzun zuten.

Errepikatu zuten ez dutela "inolako pribilegiarik" eskatzen, salbuespen egoera indargabetu eta lege arrunta aplikatzea baizik, hau da, "euskal preso guztiak etxera bidean jartzea besterik ez". Izan ere, idatziaren arabera,

"nekez uler daiteke" ETaren jarduera amaieratik hamabi urte eta desagertzenetik bost baino gehiago pasata, "espetxetik irteteko zigor krudela ezartzea oraindik orain pertsona horiei". Zehaztu dutenez, batz bestea hogeitaz urteko zigorrak bete dituzte presoek eta badira 30 urte baino gehiago kartzelan daramatzatenak.

"Mendekua eta gorrotoa"

Espainiako Auzitegi Nazionalaren eta fiskaltzaren jarrerak "mendekuan eta gorrotoan gortututik" jarraitzeko hautua egin dutela salatzen zuten ere, eta horren erakusgarri, Aitor Zelaiak eta Galder Barbadok jasotako epaia. Espainiako Auzitegi Go-

BEHIN ETA BERRIRO ERREPIKATU DUTE EZ DUTELA "INOLAKO PRIBILEGIORIK" ESKATZEN

renak maiatzean berretsi zuen haien aurkako lau urteko espetxe zigorra.

Aldarrikapenekin jarraituz, "espetxe politika humanistaren legezko helburua" betetzen ez duten jarrerak alde batera utzi eta "etorkizunari eta elkarbizitzari ateak irekitzeko ueña" dela uste dute; preso, iheslari eta deportatuen auziari irtenbidea bilatzeko. Horretarako Sarek bere helburuak azaltzen jarraitu behar dituela uste dute, izan ere, "euskal gizarteak berak, alderdi politikoez, sindikatuek, gizarte erakundeek eta herritarrek izan behar dute salbuespenari eta arbitrariotasunari amaiera emateko giltza. Gutako bakoitzak badu bere esku gauzak aldatzea".

Horrez gain, duela 22 urte auto istripuan hil ziren Iñaki Saez eta Asier Heriz gogoan izan zituzten eta gaitzetsi zuten bai haiek bai sakabanaketak eragindako gainerako hamalau hildakoez ez dutela oraindik aitortza ofizialik izan.

'Lasarte-Oria zure objektiboan' lehiaketako azken egunak

Herritarren argazkiekin osatu nahi du udalak 2024ko egutegia; parte hartzeko epemuga hilaren 27a da

Txintxarri

Iazko "arrakastak" hauspotuta, *Lasarte-Oria zure objektiboan* lehiaketa antolatu du udalak berriz ere, 2024ko egutegia lasarteoriarren argazkiekin hornitzeko. Partaide bakoitzak hiru aurkez ditzaite, formatu horizontalean, hilaren 27a baino lehen. Hilabete bakoitzeko irabazle bat aukeratu dute, eta bakoitzak 100 euroko bonu bat poltsikoratu du herriko komertzioetan erabiltzeko; azalera eramaten duten irudiaren egileak beste 50 euro irabaziko ditu.

Agustin Valdivia alkateak adierazi du "pozik" daudela, lehiaketak "arrakasta" izan delako. Iaz 67 argazki aurkeztu zituzten parte hartzaileek. "Egitasmo hau errotu nahi dugu herrian, eta urtez urte lasarteoriar gehiagok parte hartzea".

Udaleko Sozioekonomia sailko buru Nuria Fernandezek xehetu ditu lehiaketaren oinarriak. Parte hartzeko azken eguna, esan bezala, hilaren 27a izango da, ostirala. Lasarte-Orian erroldatuta egon behar dute partaideek, eta bakoitzak hiru argazki bidali ahaliko ditu,

asko jota; horietan, udalerriko eremu edo jarduerak islatu behar dituzte. Irudi horiek originalak izan beharko dute eta formatu horizontalekoak; koloretan zein txuri-beltzean aurkez ditzaite argazkilariek, hori bai, kalitate edo bereizmen altuan (bi eta hamar megabyte arteko pisua izan beharko dute), JPG nahiz TIFF formatuetan. "Argazkiak edita ditzaite parte hartzaileek, baina minimo-ki; esaterako, argi gehixeago eman".

Erabakia, epaimahai batek

Hamabi hilabete, eta beste hainbeste sari: 100 euroko bonu bana argazkilaria bakoitzari, herriko establezimenduetan gastatzeko. Sarrituetako batek 50 euro gehiago poltsikoratu dute, baldin eta bere argazkia eramaten badute azalera. Horri guztiari buruz epaimahai batek deliberatu du, eta azaro hasieran emango erabakiaren berri.

"Aurtengo egutegiaren ezauzgarri berberak eraman nahi ditugu hurrengoetara: izan daitzela politikak eta gertukoak", gehitu du Fernandezek.



TXINTXARRI

XVIII. topaketaz gozatu dute

Danak Kide elkarteak udalarekin antolatutako XVIII. Musika Topaketen barruan, *Ad lucem quam inhabitas* izeneko organo eta kantu emanaldia aurrera eraman du. Ama Brigitarren komentuko elizan egin dute emanaldia, eta bertan aritu dira Ana Belen Garcia organo jotzailea, Izei Mugica tenorea, eta Maria Jaunarena eta Marta Garcia sopranoak. Hamar pieza eskaini dizkiete bertan bildutako ikus-entzuleei.

Aisiaz gozatzeko hamaika jarduera dituzte

Udaleko Kultura sailak 2023-2024 ikasturterako kultur ikastaroen berri eman du, prentsaurrean. Horietan izena emateko epea hilaren 9an zabalduko da, eta 19ra arte izango dute interesdunek horretarako aukera. Kultur agenda ere aurkeztu dute

Txintxarri

Ikasturte berrirako kultur ikastaroen eskaintza zabaldu egin du Lasarte-Oriako Udalak. Helduei (18 urtetik gorakoak) zuzenduta daude guztiak, eta horietan parte hartu nahi dutenek, hilaren 9tik 19ra arteko tartea izango dute izen ematea egiteko. Horretarako, bi aukera izango dute. Aurrez aurre egin nahi duenak, Manuel Lekuonara joan beharko du, asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13etara. Inskripzioa sarean egin nahi dutenek, berriz, honako helbidean egin dezakete: www.lasarte-oria.eus. Hau da 2023-2024rako eskaintza: Argazkigintza hastapena; Estresa murrizteko teknikak; Sabel dantza; Barre metodoa; Meditazioa; Sendabelarrak; Dantza latinoak; Ilaran dantza tailerra; Aretoko dantzak; Joskintza eta patroigintza; Narratiba laburreko idazketa tailerra; eta, Irakurketa kluba. Guztiak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, azken hori izan ezik; gaztelania hutsean au-



Kultura saileko ordezkariak. TXINTXARRI

rrera eramango dute. Ikastaro bakoitza zein astegunetan izango den eta zein prezio izango duen jakiteko www.txintxarri.eus ataria kontsulta dezakezue.

Hilaren 24an hasiko dira lehen ikastaroak, eta hortik aurrera

beste guztiak. Ikasturte osoko iraupena izango dute guztiak, ekainera bitartekoa.

Ikastaroek aurrera egin dezaten gutxienez parte hartzaile kopuru batek eman beharko du izena. Tokiak mugatuak dira, hortaz, horiek baino izen emate gehiago batzen dituen ikastaroen kasuan, zozka bidez erabakiko dira parte hartzaileak. Udal ordezkariak azpimarratu dute kasu horretan preferentzia izango dutela ikastaro bakarrean izena eman dutenek.

Kultur jardueraz betetako hilabetea

Hamaika kultur jardueraz gozatu ahal izango dute lasarteoriarrek hil honetan. Berriki aurkeztu du udalak kultur agenda, eta askotariko ekitaldiak iragarri ditu 29ra bitarte. Musika emanaldiak, antzerkia, zinema proiektzioak, erakusketa eta beste zenbait egitasmoren berri eman dute. Horiek guztiak www.txintxarri.eus web ataria kontsulta ditzakete interesdunek.



Aurtengo udako lehiaketa irabazi duten irudiak. TXINTXARRI

'Gardentasuna' eta 'Gau giroa' argazkiek irabazi dute

TXINTXARRI-k udako lehiaketako sariak banatuko ditu: Ttakun Keren produktu sorta eta Aldikaren kutixia saski bana

Txintxarri

Argazki eder askoak bidali dituzte herritarrek TXINTXARRI-k antolatutako udako lehiaketara. Irakurleen iritziz, Garazi Mutiloaren *Gau giroa* irudia izan da ederrena, eta, hortaz, Ttakun Kultur Elkartearen produktuz osatutako otar bat eramango du etxera.

Bestalde, epaimahai profesional batek (Isaac Farre eta Aitzol Etxegoien argazkilariak eta Aldika enpresako ordezkari Beatriz Perez) erabaki du nori eman beste saria, Aldikaren kutixia saski bat. Paula Herradorrek

irabazi du, *Gardentasuna* argazkiarekin.

Lehiaketa eta zozketak

Ikasturtean zehar horrelako lehiaketa eta zozketa ugari antolatu ohi ditu TXINTXARRI-k, eta hasi berri duguna ez da salbuespena izango. Eskuetan duzun berripaperaren bidez eta www.txintxarri.eus webgunearen bitartez berri emango dugu gisa horretako egitasmoez; beraz, adi egon eta animatu parte hartzera! Bide batez, eskerrik asko udako argazki lehiaketako partaideei eta zorionak irabazleei!

"Punta-puntako" txirigotak ekarriko dituzte herrira

Bi Kolorete Kultura Elkartearekin elkarlanean, Cadizeko inauterietako saltsaren osagai ezagun eta garrantzitsuenetako bat ekarriko du herrira Lasarte-Oriako Udalak hilaren 13an, ostiralarekin: txirigotak. Dozena bat pertsona inguruko taldeak dira, gaurkotasuneko gaiak hartu eta horiei buruzko ikuskizun eta abestiak egiten dituztenak, satiratik eta umoretik. Euren ahotsez gain, instrumentu ugari erabiltzen dituzte, hala nola, gitarrak edota soinu kaxak. Aurreko urteetan elkarrekin bat baino gehiago etorri izan da gurera, ikus-entzuleek ongi gogoratuko dutenez.

Udaleko Festak arloko buru Txus Alonsok azpimarratu duenez, "punta-puntako" kartela ekarriko dute egun horretan Lasarte-Oriara, Cadizeko txirigoten lehiaketan aurreneko



TXINTXARRI

postuetan sailkatu diren taldeetako hiru igoko baitira Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholza gainera, 19:00etatik aurrera. Ikuskizunak bi ordu eta erdi iraungo ditu eta sarrerek 14 euro balio dute. Kultur etxeko leihatilan edota Kutxabank Sarrerak atari

digitalean (https://tickets.kutxabank.es/#/eu/detalle/MLCHIRI23@Janto_KB/Lekuona) eros ditzakete dagoeneko lasarteoriarrek.

"Programazioaren berri izandakoan, batek baino gehiagok esan digu harrizkoa dela horren maila altuko txirigotak ekartzea Gipuzkoara", nabarmendu du Alonsok. Herritar guztiak gonbidatu ditu emanaldi horretaz gozatzera.

La Chirigota de Fermin y Antoñito izango da aurrenekoa. Cadizeko Puerto Real hiritik dator eta *Tó me pasa a mí: 'Los desgraciaitos'* ikuskizuna oholzaratuko du. Andaluziako probintzia horretan "oso ezagun eta maitatua" dela zehaztu du Festak arloko buruak eta aurtengo lehiaketan hirugarren postua erdietsi duela. Izenburuak iradokitzen duen

moduan, txirigotako parte hartzaileei zorigaitzoko hamaika gauza pasako zaizkie eta horiei ahal duten moduan aurre egiten saiatuko dira, betiere umoretik.

Zorigaitzoko lagun kuadrilla horren ostean ariko dira Chirigota El Bizcocho-k kideak, *Los mi alma* izeneko emanaldiarekin. Surrealismo kutsuko ikuskizuna da, Inauteriak hastear direla garai batean gizaki izan ziren askoren arimak berpiztuko baitira. Aurtengo txapelketan laugarren postua eskuratu dute. "Sevillakoak izanagatik, oso estimatuak dira Cadizen eta puntuazio hobe merezi izan duten lehiaketan, adituen arabera", esan du Alonsok.

Azkenik, *El Pópulo* izeneko gladiadoreen eskola baten bueltan ardatzuko du bere saioa Cuarteto del Gago taldeak. Antolatzaileek bukaerarako utzi nahi izan dute haien ustez ikuskizun erakargarriena dena, kontuan izanda elkarrekin horrek irabazi duela Cadizeko txapelketa aurtengoa.

Bizitza gogotik ospatzen ari dira

Adinekoen Omenaldi Astea

Adinekoen Omenaldi Astea abian da. Hilabetearekin batera hasi ditu Biyak Batek lasarteoriatar helduenak aintzatesteko ekimenak. Bandera igoera egin dute eta egoitza atarian egongo da datozen egunotan. Agustin Valdivia alkatea, Lourdes Acevedo, Maite Iglesias eta Nuria Fernandez zinegotziak bertan izan dira. Ekitaldia trikitixa doinuak girotu du eta alkateari agurra dantzatuta amaitu dute. Egoitzatik mezatara joan dira San Pedro elizan, eta handik, kultur etxera umorezko ikuskizun batez gozatzera. Amaieran, Michelingo frontoian bazkaria egin dute bazkideek elkarrekin. Ohi bezala, omendu egin dituzte herriko gizonezko zaharena eta emakumezko zaharrenak: Justo Alberdi, 92 urte, eta Emerita Dominguez, 90 urte. Bingoa, Ondo ibili paseo osasungarriak, bideo saioak, Duo Imperial taldearen kontzertua... jarduera gehiago aurrera eramaten ari dira egunotan. Ospakizunak igande honetan amaituko dituzte, hilak 8, urrezko ezteiak bete dituzten bazkideak omenduta.



Bapo bazkaldu zuten Michelinen. Azpian, udal ordezkariak, Biyak Bat egoitzako lehendakari eta otorduko emakume nahiz gizon helduenekin. TXINTXARRI



Biyak Bat elkartearen egoitzan elkartu ziren herritarrek, bandera igo eta Adinekoen Omenaldi Asteari ekiteko. TXINTXARRI



Konfetiak eztanda egitearekin batera lehertu zen festa Kale Nagusian. TXINTXARRI



Bingoan jokatzeko elkartu zirenak, bakoitza bere kartoia adi. ISAAC FARRE

"Herritar guztiek dute tokia irakurle txokoan"

AINZANE USANDIZAGA LASARTE-ORIAKO IRAKURLE TXOKOAREN DINAMIZATZAILEA
Erronka polita du aurretik idazle lasarteoriarrak, azken hamar urteetan taldea gidatu duen Uxue Alberdiren lekukoa hartuta. "Arduraz eta ilusioz" ariko dela azpimarratu du

Iñigo Gonzalez Sarobe

Hilaren 17an ekingo dio ikasurteari Lasarte-Oriako irakurle txokoak, asteartearekin, Sherwood Anderson idazlearen *Winesburg, Ohio* liburua hizpide hartuta. Manuel Lekuona Kultur Etxeko 3. solairuan elkartuko da taldea, 18:30ean. Berrikuntza nabarmen bat iragarri dute kurtsu honetarako: taldea Aintzane Usandizaga herritarrak dinamizatuko du aurten, Uxue Alberdiren lekukoa hartuta. Idazle lasarteoriarrarekin hitz egin du TXINTXARRI-k.

Zer da irakurle txoko bat?

Irakurle txokoa liburuez eta elkarrizketez taldean gozatzeko espazio bat da. Liburu zehatz bat izaten da abiapuntu, baina honetaz soilik jarduteaz hara-tago, gai ugariz solasean aritzeko leihoak zabaltzen dira.

Zein da halako egitasmoen helburu nagusia?

Irakurzaletasuna eta literatura, bakarka egiten den jarduera soilaz izateaz gain, partekatu litekeen interes eta plazer bezala bizitzea litzateke helburu nagusia. Beste hainbat esperientzia taldean bizitzera oso ohituta gaude: kontzertuak, antzerkia, jaiak, kirol ekitaldiak... Baina irakurketa badirudi modu indibidualen soilik egin liteken zerbaite dela.



Aintzane Usandizaga, irakurle txokoan, 'Kabitu ezina' liburuari buruz solasean. TXINTXARRI

Baina, egia esan, norberak irakurri duena beste batzuekin komentatzeak, eztabaidatzeak... esperientzia aberasgarri bat eskaintzen du. Partekatze hori, gainera, euskaraz egiten dugu, euskal egile eta itzultzaileen lanak ezagutzeko eta zabalduz.

Eta saioen dinamika?

Hilabeteen saio bat egiten dugu. Aurrez proposaturiko liburua irakurri eta, elkartzen garenean, irakurritakoaren inguruan jarduten dugu. Aldian behin liburuaren egileak ere gonbidatzen ditugu solasaldi hauetara, eta

idazketa prozesuaz, liburua osatzen duten ezaugarriez... beste modu batean jarduteko aukera ematen digu horrek, bai eta gure idazle eta itzultzaileak ezagutzeko parada eman ere. Saio bereziak izaten dira.

Noiz ekingo diozue ikasurteari?

Hilaren 17an hasiko gara. Animatu nahi duena garaiz dabil lehen liburua eskuratu eta gura etortzeko: Sherwood Andersonen *Winesburg, Ohio* izango da lehen irakurgaia, Joannes Jauregik ingelesetik euskarara itzulia.

Zalantzak baditu norbaitek, nola animatu saioetara etortzera? Zerk egiten du irakurle txokoa erakargarri, zure iritzi?

Lagunen bati etortzeko gonbidapena luzatzean ohartu naiz askok uste dutela literatur txoko batera hurbiltzeko oso irakurle jantzia izan behar dela edo literaturaz asko jakin, eta ez da hala, inondik inora ere. Halakoak ere ongi etorriak dira, noski, baina espazio hauen helburua nork beretik partekatzea eta guztiok elkarrengandik abarastea da. Batak ikusi duena besteak ez zuten nabaritutako edo hark dakiena zuzentzat berria izango da... Liburutik hasten gara gainera, baina horrek gai askotaz hitz egitera eraman gaitzake. Irakurtzea umetatik maitate dutenak, duela gutxi zaletu direnak, irakurtzeko ohitura hartu nahi dutenak, liburu zein egile gehiago ezagutu nahi dutenak... guztiek dute lekua irakurle txokoan, eta erabat irekia dago, gainera, nahi duena nahi duenean hurbiltzeko.

Urte bukaerara arteko egutegia zehaztu duzue jada. Zer landuko duzue azaro eta abenduko saioetan?

Azaroaren 21ean Garazi Arrularen *Lurraz beste* liburuaz jardungo dugu egileak gurekin dugula; eta, abenduaren 19an, Uxue Apaolazarekin *Bihurguneko nasa* lanaz hitz egingo dugu. Abendura artekoa daukagu zehaztua, hiru liburu eta bi idazle gonbidatu. Urte amaieran zerrendatuko ditugu urtarriletik ikasurte amaierara artekoak.

Uxue Alberdiren lekukoa hartuko duzue, Aintzane, aurten zuk dinamizatuko baituzue gure herriko irakurle txokoa. Erronka polita aurretik duzuna, ezta?

Bai horixe! Uxuek hamar urtez gidatu du Lasarte-Oriako ira-

kurle txokoa eta arduraz eta ilusioz hartuko dut haren lekukoa. Talde oso polita dago herrian, eta hitzordu ederrak izango direla zalantzarik ez dut.

Zein izango da zure lana?

Liburu proposamenak egitea eta horien irakurketa partekatuak bultzatzea. Aurretik informazioa bidali, elkarrizketak pizteko amuak luzatu... Denok osatu behar dugu txokoa, denon ahotza entzutea da aberasgarriena, baina hor egongo naiz ni akuitua prest solasak aurrera jarrai dezan eta liburuari zukua ater diezaiozun. Niretzat irakurle talde bat gidatzea esperientzia berria da, baina, ziur nago asko ikasiko dudala eta, irakurle bezala ere, niretik jartzeko eta besteenetik jasotzeko gogotsu nago.

Idazle gisa parte hartu duzue horrelako dinamiketan, ezta? Aberasgarriak dira halako harremanak egi-leentzat ere?

Bai, *Kabitu ezina*-rekin eta *Zomorrotu*-rekin izan naiz herriko taldean, Uxue gidari. Oso esperientzia bereziak izan ziren niretzat, eroso egon ginen eta elkarrizketa norabide askotan zabaldu zen. Oso aberasgarria da idazle moduan halako taldetara joatea. Irakurlearekin aurrez aurre hitz egiteko aukera daukazu, irakurle mota desberdinekin, gainera, eta liburuak besteengan izan dezakeen eragina, sor ditzakeen irakurketak... ezagutzeko luxua eskaintzen dizu, baita zure prozesua partekatzeko ere.

"LIBURUEZ ETA ELKARRIZKETEZ TALDEAN GOZATZEKO ESPAZIO BAT DA IRAKURLE TXOKOA"

Abendura arteko saioak, zehaztuta


Hilabete honetako eta abenduko saioak kultur etxeko 3. solairuan aurrera eramango dituzte eta azarokoa, berriz, Antonio Mercero aretoan, udalarekin elkarlanean. Guztiak izango dira astearteetan, 18:30ean hasita.

Sherwood Anderson idazlearen *Winesburg, Ohio* liburuarekin ekingo diote ikasurteari, hilaren 17an. Joannes Jauregik itzuli du ingelesetik euskarara. 21 istorio laburretan aletzen ditu idazleak bertako biztanleen nahi eta ezinak, elkar

korapilaturiko bizitzak, XIX. mendeko Ipar Amerikako landa aldeko memoria emozional bat osatzeraino.

Azaroko saiora (21ean izango da) *Lurraz beste* lanaren idazle Garazi Arrula etorriko da. Zimendu anitz pitzatuak dituzte bilduma horretako pertsonaiek, edo pitzatzeaz, afektu dardaraldi betean. Euskarri egonkortzat zituzten horiek hauskor eta urrakor bilakatu zaizkie, deserrotze sentimendu kontraesankorrak zeharkatzeraino.

Azkenik, urtea ixteko, Uxue Apaolazarekin *Bihurguneko nasa* lanaz hitz egingo dute, abenduaren 19an. Hamar urte geroago Madrilgo eguzkipean Juan, Josetxo, Fer eta Estebanekin elkartuko da Lur. Elkar barkatzen duen lagunarte bat, elkarbanatutakoaz nork bere kontakizuna gordeko duen arren. Horrexek egiten die aterpe liburu hau osatzen duten bederatz narrazioei. Kondizio sozialaren konprezioez, elkartasunaren, lehiaren eta karitatearen arteko, arrotzaren aurreko izuaz zein dantza gogoaz, familia loturez, beldurraz eta epikaz ari dira.



Kirol Galako hautagaiak aurkezteko garaia ireki da

Hilaren 6tik 29ra, 2023. urteko kirolari onenaren zein kirol ibilbidearen sarietarako proposamenak egin ahalko dituzte herritarrek. Kirol elkarteek azaroaren 12ra arte izango dute euren iradokizun eta bozkak emateko. Abenduaren 22an, Kirol Gala egingo dute

Txintxarri

Aste honetan zehar *Aukeratu aurtengo zure kirolaria* parte hartze prozesuko eskuorriak banatu dira Lasarte-Oriako etxeetan. Gaur, hilaren 6an, ekimena martxan jarri da eta herritarrek euren ekarpenak egin ditzakete. Nagore Duran Parte hartze arloko zinegotziak eta Kirol batzorde buru Goizalde Pildainek eman dute aukeraketaren pausoen berri.

Ekarpenak egiteko, etxeetara iritsi diren orrietan zein sarietarako hautagaia den zehaztu eta kirolariaren zein eskatzailearen datuak bete beharko dira. Udal ordezkariak zehaztu dutenez, "proposatutako kirolariak 18 urte baino gehiago izan behar dituzte".

Proposamen txartelak udal eraikinetan dauden postontzietan utzi daitezke; Internet bidez ere parte hartzeko aukera izango da. Ekimeneko karteletan zein es-



Udal ordezkariak, parte hartze prozesuaren aurkezpenaren. TXINTXARRI

kuorrietan udaleko webgunera daraman QR bat aurki dezakete herritarrek eta bertan euren ekarpena egin dezakete. Hautagaiak aurkezteko azken eguna hilaren 29a izango da.

Izendapenak aztertu eta zerrenda bat bidaliko zaie kirol elkartei. Horiek azaroaren 12ra arte izango dute euren iradokizunak egin eta bozka emateko. Azkenik udal ordezkariak osatutako batzordeak bere aukeraketa egin

eta kirolari sarituak jakitera emango dituzte.

Abenduaren 22an egingo den Kirol Galan banatuko dira sariak. Aurten, gainera, sariei dagokionez berrikuntza bat dagoela jakitera eman dute agerraldian: "Udala kirolarien babesle izango da eta federatua ez bada, kiroldegia doan izango du urtebetez".

Udaleko ordezkariak herritarrei eta kirol elkartei dei egin diete euren proposamenak egiteko.

Beste garaipen bat eskuratu du gomazko palako bikoteak

Borrokatuaz, neurketari itzulita eman diote Jagoba Mendizabal eta Julen Urruzolak; 25-24 irabazi dute

Txintxarri

Ezker Hormako liga aurrera doa. Hilaren lehenean, Intza kirol elkarteko gomazko palako bikoteak bakarrik jokatu zuen norgehiagoka, Loidibarren pilotalekuan. 3. mailako eskuzko bikoteak ere jardunaldia bazuen ere, aurkari zuen Lagunak ez zen aurkeztu eta ez zuen jokatzetik izan.

Lasarte-Oriako pilotalekura itzulita, Jagoba Mendizabal eta Julen Urruzola izan ziren Intzaren izenean Mundarro 2ren aurka indarrak neurtu zituzten ordezkariak. Urruzola atzelariak hartu zuen neurketaren pisua; Mendizabal oineko zauri batetik sendatzen ari da eta ez dago %100ean.

Aurkariak aukeratutako pilotarekin hasi ziren jokoan eta herriko bikotea eroso zegoenez ez zuen aldaketa egin. Intzak zein Mundarrok tantoak egin zituzten eta aldea irekitzea lortzen zutenerako aurkariak berdinketa lortzen zuen.

Hamazazpigarren tantoa lortu ostean, astigartarrek pilota bizia atera zuten eta ihes egin zuten markagailuan 20-24koa egon arte.



Urruzola, pilotari ematen. TXINTXARRI

Etxeko bikoak tanto egin eta etanaldira iristea adostu zuen; Urruzola nekatuta zegoen. Puntu lortu eta etxeko atzelariak atsedean hartu bitartean neurketako partidako azken zatiari nola aurre egin erabaki zuten: pilota hotzarekin jokatzeko. Asko arriskatu eta tanto azkarrak lortuz, garaipena erdietsi zuten.

Gauzak horrela, aurreko asteko arantza kendu ahal izan du Intzako gomazko pala taldeak, EPLeren aurka 25-10 galdu baitzuen, Errenterian. Eta gaur, hilak 6, Gaztelekuren aurka duen hitzorduari begira indarrak eman dizkio.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA Ostadar SKT - Touring KE Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA Roteta CD - Ostadar SKT Larunbata. 17:45. Martutene, Donostian.
ERREGIONALEN I. MAILA Ostadar SKT - Idiazabal KE Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean. Texas CF - Tolosa CF B Larunbata. 18:00. Zubieta Z5, Donostian.
OHOREZKO JUBENILA Ostadar SKT - Gure Txokoa KKE Igandea. 12:45. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN I. MAILA Segura Goierri KE B - Texas CF Larunbata. 17:00. Alustiza, Seguran. Mariño CD B - Ostadar SKT B Larunbata. 17:30. Ugalde-Ventas, Irunen. Ostadar SKT C - Urnieta CD B Igandea. 10:50. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETEA Antiguoko KE B - Ostadar SKT Igandea. 12:20. Berio, Donostian.
KADETEEN I. MAILA Ostadar SKT C - Antigua Luberrri KE B Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean. Texas CF - Euskalduna A. SD B Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean. Lazkao KE C - Ostadar SKT B Larunbata. 10:00. Arizti Handi, Lazkao.
KADETE NESKAK Añorga KKE B - Ostadar SKT Igandea. 09:30. Rezola, Donostian.
INFANTIL HANDI Kostkas Mariaren Bihotza CD - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Matigoxotegi, Donostian.
INFANTIL TXIKI Astigarragako Mundarro FKE - Ostadar SKT Larunbata. 12:45. Zarkumendegi, Astigarragan.
INFANTILEN I. MAILA Billabona KFE B - Ostadar SKT Larunbata. 11:45. Arratzain, Villabonan.

Astigarragako Mundarro FKE - Texas CF Larunbata. 10:00. Zarkumendegi, Astigarragan.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA Laskorain KE - Eguzki Arkupe Rehab. Ostirala. 20:00. Eskolapioak ik., Tolosan.
GAZTEEN MAILA Eguzki Bodegas Ayesa - Anoeta FT Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA Zarautz Gran Camping - Eguzki G. Goxua Igandea. 09:30. Arizbatalde kirol., Zarautzen.
SASKIBALOA
I. MAILA Ostadar SKT - Añorga KKE Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
III. MAILA Ostadar SKT - Eibar Saskibaloia C Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA Inar Optika ISB - Ostadar SKT Larunbata. 10:45. Azpeitiako kirol.

KADETE ERRENDIMENDU URREA Ostadar SKT - Bera Bera Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegia.
KADETE PARTAIDETZA Saski Axular - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Benta Berri kirol., Donostian.
INFANTIL ERRENDIMENDU URREA Ostadar SKT - Easo Basket Mendiola Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kir.
INFANTIL PARTAIDETZA Ostadar SKT - ZAST 2010 A Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir. Ostadar Urdina - SaskiAxular Pagola Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kir. Ostadar Beltza - ZAST Tronautak Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kir. Oiarso Lezo SKT 2010 - Ostadar SKT (Aurreratutako partida) Igandea. 09:30. Beko Errota kir., Lezon.
PILOTA
ESKUZ BINAKA, 3. SENIORRA EPL - Intza KE Larunbata. 10:30. Agustina Otaola pil., Errenterian.

GOMAZKO PALA, 3. SENIORRA Gazteleku 3 - Intza KE Ostirala. 18:30. Arrate pil., Andoainen.
ERRUGBIA
14 URTEZ AZPIKOA Zarautz Beltzak taldeko gazteek zazpiko errugbi modalitateko topaketa dute. Larunbata. 10:00 Altamira, Ordizian.
LASTERKETA
ANBOTO KM. BERTIKALA Herriko hainbat lasterkerik XIV. Anboto Km. bertikala proba lehiatuko dute. Larunbata. 15:00. Atxondo, Bizkaian.
HIRU HONDARTZAKO KROSA Lasarte-Oriako korrikalari ugari Hiru Hondartzetako 23. krosean parte hartuko dute. Igandea. 10:00. Donostian.

Eguzkiko kadeteek ederki hasi dute liga

Denboraldiko lehen garaipena erdietsi du Eguzki Goxokis Goxua taldeak; 3-0 irabazi dio Lauburu Ibarra Bri. Infantil mailatik kadetera igo dira jokalariek; mailara egokitu eta gainerako taldeak ezagutzea dute helburu Gorka Redondoren mutilek

Txintxarri

Eguzki Goxokis Goxua kadete taldeak erronka handia du aurrean. Infantil mailatik jauzia egin du eta aurrean mailara egokitu eta gainerako taldeak ezagutze-ko asmoa dute Gorka Redondo eta bere jokalariek.

Egokitzapenaren bidean, ongi hasi dute denboraldia. Lehen neurketan kadeteek 3-0 garaitu dute Lauburu Ibarra B taldea, Maialen Chourraut kiroldegian.

Etxeko taldea nagusi izan zen bai erasoan baita defentsan ere eta Ibarra Bkoek ez zuen aukerarik izan. Entrenatzaileak azaldu modura, "neurketako planteamendua aurrera eramanez ahal izan genuen eta lasai jokatu ahal izan genuen".

Gauzak horrela, neurketa hasi bezain pronto aurreratu zen Eguzki markagailuan, Markelen jokaldi pertsonal bati esker. Lasai jokatze-ko aukera eman zien golak eta minutuetara Markek berak berritua baloia sarera bidali zuen.



Neurketako irudia. TXINTXARRI

Atsedendialdiaren ostean etorri zen etxekoen hirugarren gola. Kontraeraso batean baloia ongi mugitu eta Gorka Lucerok aurkariaren atezaina gainditu zuen.

Neurketa amaitzean zegoela Eguzkiko kadeteek errenta handitzeko hainbat aukera izan zituzten arren, ezin izan zituzten gauzatu.

Kadeteen prestatzaile Redondo pozarren dago gazteek lehen neurketa honetan egindako lanarekin: "Gustura nago egin zuten lanagatik. Neurketan zentratzea gehiago kostako zitzaie-

la uste nuen. Baina lasai jokatzen jakin zuten eta garaipena erdietsi genuen. Egia da ere Lauburu Ibarra B taldea dela eta horiek ere lehenengo urteko jokalariek asko zituztela".

Hurrengo hitzorduei begira lehen neurketa irabazteak jokalariei eta prestatzaileari "lasaitasuna eta adorea" ematen die- la ere jakitera eman du.

Hilaren 8an Zarautz Gran Camping talde izango dute aurrez aurre eta neurketaz neurketa joango direla azpimarratu du Eguzkiko entrenatzaileak: "Lehen urteko taldea gara. Gainerako taldeak ezagutu behar ditugu. Baina neurketak borrokatu ahal-ko ditugula uste dut".

Kadeteena ez zen Eguzki Areto Futbol taldeak lortutako garaipen bakarra izan. 1. mailako taldeak neurketa borrokatu batean Gaintxu 5-4 gainditu zuen etxean. Jubenilek ez zuten zortetik izan, ordea; Antxo Pescaderia Ferreras-en aurka 2-1 galdu zuten.

Kadete Errendimendu taldeak, ezin Zast Kuraye garaitu

Senior, Infantil eta Kadete partaidetza taldeak lehia hasiko dira. Horieta gehienek etxean jokatuko dute

Txintxarri

Kadete Errendimendu Urrea mailako Ostadar SKT bakarririk izan zuen jardunaldia irailaren 30ean. Zast Kurayeren aurka neurtu zituen indarrak Jonatan Reinoren taldeak, Zarautzen. Neurketa parekatua izango zela zirudien arren, etxeko taldea 62-37 gailendu zen.

Ongi hasi zuen partida Ostadarrak. Ederki borrokatu zuen talde urdin-beltzak; aukerak ongi baliatu zituen eta lehen laurdena aurretik amaitu zuen, 8-10.

Norgehiagokaren erritmoa mantendu zen eta Reinoren jokalariek errentari eustea lortu zuten. Alabaina, atsedendialdirako lau minuturen faltan, Zarautzek markagailuari itzulia eman zion eta zazpi puntuko alde ireki zuen.

Bigarren zatia ez zen hobe izan. Etxeko taldea erasoan nagusitu zen, batez ere, azken laurdenean eta tartea handitzen joan zen.

Gehienak, martxan

Ostadar Saskibaloia ataleko taldeak mailakatuta ari dira lehia sartzen. Jokoan ari diren bi taldeei senior eta infantil mailako zein kadete partaidetza jokalariek batuko zaizkie, hilaren 7an eta 8an. Bi egunetan saskibaloiaz gozatzeko

aukera zabala izango da Maialen Chourraut kiroldegian.

Larunbatean, goizeko 09:30ean, Infantil Partaidetzako Ostadar taldearen neurketa izango da; ZAST 2010 A izango da aurrean. Hitzordu bikoitza izango dute gainera jokalariek lasarteoriatarrek; hilaren 8an Lezon jokatuko dute.

Etxeko neurketetara itzulita, 14:00etan, Infantil Errendimendu Urreko taldeak Easo Basket Mendiola izango du aurrez aurre. Eta arratsaldean senior mailako txanda izango da, lehen taldeak Añorga KKE izango du aurkari; III. mailakoak, aldiz, Eibar Saskibaloia C. Hitzorduak 16:00etan eta 18:00etan izango dira, hurrenez hurren.

Hilaren 8an, 09:30ean, Kadete Errendimendu Urreko taldeak Bera Bera gainditzeko borrokatuko du, 11:15ean. Bitan banatuko da kantxa eta Infantil partaidetza mailako Ostadar Urdin eta Beltza taldeak aterako dira lehiara; SaskiAxular Pagola eta ZAST Tro-nautak izango dituzte arerio.

Kadete Partaidetza mailako jokalariek kanpoan hasiko dute lehia, Donostian, eta Junior Errendimendu Zilarreko taldeak Azpeitian izango du norgehiagoka.

Texaseko jubenilak garaipena erdietsiz hasi du denboraldia

Texas Lasartearrako Jubenil I. Mailako jokalariek ilusioz eta gogoz ekin diote ligari; Lazkao 4-1 garaitu dute

Txintxarri

Texas Lasartearrako Jubenil I. mailako taldeak hilaren lehenean eman zion hasiera ligari. Lehen jardunaldian atsedena izan ostean, gogotsu atera ziren zelaira Carlos Tejadoren mutilak eta ederki jardun ziren: 4-1 garaitu zuten Lazkao, Michelin kirol gunean.

Entrenatzaileak nabarmendu modura, "ilusioz betetako denboraldia" da aurretik dutena. Jokalarien artean giro ederra sortu dutela ere jakitera eman du eta fitxaketa berriek ere harri-rra ona izan dute: "Jokalariek

berriak etorri dira beste talde batzuetatik eta taldeak ongi hartu ditu. Batzuk, gainera, maila baxuago batean lehiatzea erabaki dute eroso egoteko".

Eta egoera horrek ere zelai-ian isla izan ohi du. Lehen minutu-rik norgehiagokan kontzentratuak egon ziren talde urdin-zuriko gazteak. Euren erritmoa ezarri zuten eta erraz lortu zituzten lehen bi golak.

Lazkao ez zuen aukerarik sortu, baina etxekoen akats bat baliatuz lehia jarraitze-ko gola egin zuen aurkariak.



Texas Lasartearrako jokalaria ihesi doa neurketako une batean. TXINTXARRI

Atsedendialdiaren ostean, Texas Lasartearrak neurketaren kontrola bereganatu eta beste bi gol eginez, garaipena berretsi zuen. Talde urdin-zurik Segura Goierri B izango du hurrengo aurkaria.

Gainerako taldeak

Texas Lasartearrako Infantil I. mailako taldeak ere garaipena erdietsi zuen Billabonaren aurka, 5-0. Talde urdin-zuriko gainerako taldeek puntua lortu zuten euren neurketetan. Erregional I. Maila-

ko taldeak bina berdin du zuten Usurbilen aurka; Kadete I. mailako kideek, aldiz, bana Idiazabal.

Ostadar SKTko taldeen artean ere denetariko emaitzak izan ziren. Honakoak izan ziren markagailuak: Ohorezko Erregional maila, Antiguoko KE 2-1 Ostadar SKT; Goren- goen maila, Ostadar SKT 1-1 Allerru KE; Erregional 1. Maila, Lazkao KE 5-1 Ostadar SKT; Ohorezko Jubeni- la, Beti Ona CD 3-6 Ostadar SKT; Jubenil I. Maila, Ostadar SKT B 1-3 Touring CD C eta Danena KE C 2-1 Ostadar SKT C; Ohorezko ka- detea, Ostadar SKT 3-0 Kotskas Mariaren Bihotza CD B; Kadeteen I. maila, Ostadar SKT B 1-6 Dane- na KE B eta Usurbil FT 11-1 Ostadar SKT C; kadete neskek, Antiguoko KE B 11-0 Ostadar SKT; Infantil Handi, Ostadar SKT 0-4 Martutene KE eta Infantilen I. Maila, Ostadar SKT 1-2 Euskalduna A. SD.

Beltzak taldea, Arratiko Zekorren aurka garaile

Euskal Ligako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak garaipena erdietsi du Ligako lehen jardunaldian. Arratiko Zekorrek bizkaitarrak 6-31 menderatu dituzte beltzek. 16 urtez zein 18 urtez azpiko taldeek batean kale bestean bale egin dute Errioxan

Txintxarri

Euskal Ligako Zarautz Beltzak errugbi taldeak ederki hasi du 2. mailako denboraldia. Herriarrez osatua dagoen plantillak –hogei jokalarietatik hamasei lasarteoriatarrak dira– Igorrera, Bizkaira egin zuen bidaia irailaren 30ean eta Arratiko Zekorrek garaitu zuen, 6-31.

Norgehiagoka berdinduta hasi zen. Bi taldeek erasoan eta defentsan joko eraginkorra egin zuten eta entsegu marrara iristea zaila izan zen. Gauzak horrela, 25. minutuan, etxekoek zigor kolpe bat baliatu zuten markagailua irekitzeko.

Zarautz Beltzak taldeak ez zuen amore eman eta erasoak bata bestearen atzetik josi zituen. Sei minutu behar izan zituzten beltzek entsegua lortzeko; Mikel Ibisate herritarrak egin zuen.

Ahaleginak ahalegin, 3-5 iritsi ziren atsedendira. Ostean, indarrak berreskuratuta, bizkaitarrek zigor kolpea lortu eta zelai erditik gauzatu zuten.

Zarautz Beltzak taldeko lerroetan aldaketak egin eta gogoz erasora jokatzuz Eneko Arbizu lasarteoriatarrak –Euskal Ligan estreinakoz jokatzuz– entsegua egin zuen.

Jokaldi horren ostean, beltzak nagusi izan ziren. Julen Cubreirok bitan eta Jokin Belokik beste batean marra igaro zuten; Belokik berak hiruetan baloia haga artera bidali zuen.

Etxekoek ez zuten markagailuan eragiteko aukerarik izan eta 6-31 amaitsu zen norgehiagoka.

Bi aurpegiak

Senior 2. mailako taldearen antzera, harrobiko taldeak ere lehiatzen hasi dira. Zarautz Beltzak-eko 16 urtez azpiko eta 18 urtez azpiko taldeek Logroñon, Errioxan jokatu zuten Euskal Ligako lehen jardunaldia. Biek Envases R.C. Rioja taldea izan zuten aurrez aurre eta txanpo-



Bi taldeetako kideak, mele bat egiten. BEÑAT ARROYO

Saletaren debuta Ohorezko Mailan

Espainia mailan lehen ari diren herritarrek batean kale eta bestak bale egin zuten.

Ampo Ordiziak ez zuen zorterik izan Ohorezko Mailako lehen jardunaldian. Ordiziako taldeak azken minutuan galdu zuen Pasek Belenosen aurkako neurketa. Zigor kolpe batek Avileseko taldeari eman zion garaipena, 34-35. Emaitza alde batera utzita, Alex Saleta herritarrak debuta egin zuen mailan.

Bestalde, Jon Ander Puertas herritarra Malaga Rugby Klubean ari da lehen aurtan. Espainiako Ohorezko B mailako C taldean dago kokatua taldea. Ligako bigarren jardunaldian, Madrilgo Ingenieros Industriales Las Rozas taldea irabazi zuten, 29-42. Puertasek entseguetako bat lortu zuen.

naren bi aldeak bizi izan zituzten. Zaharrenek 14-61 irabazi zuten, gazteenek, aldiz, 46-15 amaitsu zuten lehia.

Bestalde, 14 urtez azpiko mailako zazpiko errugbi modalitateko topaketa izan zen Zarauzko Asti zelaian. Zarautz Beltzak, Iruña, Arrasate, Eibar eta Mutrikuko taldeetako gazteak bildu ziren euren onena emateko.

Eta Beltzak errugbi eskolako haurrek ere jardunaldi ederra izan zuten Hondarribiko hondartzan. Gipuzkoa, Araba, Nafarroa zein Errioxako 12 urtez

azpiko zein 10 urtez azpiko hainbat taldek bat egin zuten topaketei hasiera emateko. Gazte- txoek ederki harrotu zuten hondarra euren lasterketa, plakkaketa eta entseguekin.

Orain Euskal Ligako taldeek bi aste izango dituzte hurrengo hitzorduak prestatzeko; hurrengo astean atsedena dute eta zubian ez da jardunaldirik izango. Hilaren 22ko asteburuan Zaisa Txingudiren aurka neurtuko dituzte indarra seniorrek eta 16 zein 18 urtez azpiko taldeek Iruña RC izango dute aurkari.



Geldiezinak proiektuaren aurkezpena. BAT BASQUE TEAM

Geldiezinak, euskal emakume kirolarien lana nabarmentzen

Maialen Chourraut herritarra izango da dokumental saileko zein podcast sortetako protagonistetako bat

Txintxarri

Euskal kirolaren historian nabarmendu diren hainbat emakumeren lana eta lorpenak balioetsi eta belaunaldi berrientzako erreferenteak sortzeko helburuarekin Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak eta Basque Team Fundazioak Geldiezinak proiektua jarri du martxan.

Ekimenaren baitan, Korima Films-ek ekoiztutako Geldiezinak dokumental saila eta podcast sorta bat egin dira euskal emakume kirolari esanguratsuekin. Maialen Chourraut herritarra zein Ibone Belaustegigoitia Joko Olimpiko batzuetan lehiatu zen lehen emakume euskalduna edo Eburne Pasaban alpinista eta Karmele Gisasola, Nerea Arruti eta Alazne Etxaburu herri kirolariak izarrak dira protagonistetako batzuk.

Atalez atal, emakumeen kirol unibertsoaren berezitasunak

ulertzen lagunduko duten gai interesgarriak landuko dira; hala nola, amatasuna, estereotipoen haustura, plangintza espezifikoaren beharra emakumearen fisiologia kontuan hartuta eta kirol erakundeetako erabaki postuetan emakumeen presentzia bultzatzeko beharra.

Non eskuragarri

Dokumental saila ETB1eko *Hel-muga* saioaren barruan eskainiko dute, igandeetan, 11:30ean. Lehen atala hilaren 15ean izango da.

Horrez gain, kapituluaren bertsiorelebiduna eta azpitoluduna Basque Team Fundazioaren kanal ezberdinetan (YouTube, webgunea eta sare sozialak) zein EITBko Primeran plataforman egongo dira eskuragarri.

Podcastei dagokionez, EITB taldeko plataformen bidez entzun ahal izango dira saioak eta baikoitzak hogeitun minutuko iraupena izango du.

Herritar talde bat izan da Donostiako Maratoi erdian lehian

Behobia-Donostia lasterketarako ia hilabete geratzen da. Urria hastearrekin batera korrikalarietako euren marka ondu edo helburuak betetzeko aukera ezberdinak dituzte astebururo. Hilaren amaieran Lasarte-Oria Bail Krosa izango dugu Lasarte-Orian, baina hilaren lehen egunean Donostiako Zurich Maratoi erdia lehiatu zen.

Izena emanda zeuden nazioarteko 2.200 lasterkarien artean, 30 bat herritar edo Lasarte-Oriako kirol taldeetako ordezkari zeuden. Horieta batzuk gainera denborak zehazten dituzten banderinak eramateko erantzukizuna izan zuten.

Eguzkia eta beroari aurre eginenez, herritar gehienek jaso zuten proba gainditu izanaren domina Donostiako udaletxe aurreko helmugan. Horien artean, David Cordero izan zen azkarrena; 01.21.32ko marka egin zuen.

ZORION AGURRAK



Manolo
Zure emazte eta semearen partez, zorionak! Orain arte bezain guapo jarraitu!



Lucia
Zorionak Lucia familia osoaren partez. 5 urte betetzea ez da gauza makala eta elkarrekin ospatuko dugu. Asko maite zaitugu!



Emma
Zorionak Emma! Zein azkar igaro diren zure bizitzako lehen 2 urteak. Zoragarria zara eta zu hazten ikusteak egunero pozten gaitu.



Luka
Lau, lau, lau, sardina bakalau!!! Zorionak hazi ta hazi ari den etxeko altxor haundiari! Asko matte zattugu!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.


OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 6



Larunbata, 7



Igandea, 8



Astelehena, 9



Asteartea, 10



Asteazkena, 11



Osteguna, 12



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 6	LASA
LARUNBATA, 7	LASA
IGANDEA, 8	LASA
ASTELEHENA, 9	URBISTONDO
ASTEARTEA, 10	ACHA-ORBEA
ASTEAZKENA, 11	GIL
OSTEGUNA, 12	URBISTONDO
OSTIRALA, 13	DE ORUE
LARUNBATA, 14	ACHA-ORBEA
IGANDEA, 15	ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 16	DE MIGUEL
ASTEARTEA, 17	LASA
ASTEAZKENA, 18	GIL
OSTEGUNA, 19	URBISTONDO

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA
22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola:
Labumbe Berri 11, Hernani.
943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.



Jaio da!

DEITU 943-37 14 48 TELEFONORA, BIDALI HAURRAREN IZEN-ABIZENAK ETA JAIOTZE DATA TXINTXARRI@TTAKUN.EUS HELBIDE ELEKTRONIKORA EDO 688 68 35 10 WHATSAPP ZENBAKIRA.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Katekesiko saioen hasiera

Katekesiko 2023-24 ikasturte berriko saioak hilaren 7an, larunbatarekin, hasiko dira San Pedro parrokian.

Arduradunek jakitera eman dutenez, 10:30ean, LH1 mailan dauden haur eta familiak lehenengo bilduko dira eta euren eskutik, saioen nondik norakoak ezagutuko dituzte.

Saio horietan parte hartzeko familiek izena eman behar dute. Inskripzioa gaur, hilak 6, 19:00etan parrokiako bulegoan egingo dute.

Parrokiako arduradunek gogoratu dutenez, 9 urterekin lehenengo jaunartzea hartu dezaten katekesiko beharrezkoak diren hiru urteak egin behar dira.

txintxarri

Hurrengo
TXINTXARRI
paperean
urriaren 20an
argitaratuko dugu

Bitartean, jarraitu albisteak:
www.txintxarri.eus

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 089 380 zenbakira.

LANA

ESKAINTZA

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVA info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

Bi umeei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH4. kurtsoan dago eta bestea DBH4en. Utzi mezua whatsappen zure datuekin, adina, ikasketak, orduko prezioa... 688 74 09 31.

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erixeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erixeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatua egingo dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

OPARI

Katakumeak oparitzeko. Oso politak! Harremanetarako telefonoa: 628 90 41 30.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odrozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 6

LASARTE-ORIA Omenaldia

Adinekoen Omenaldi Astearen barruko jarduerak aurrera eramango dituzte.

11:00etan, Ondo ibili paseo osasungarria, Okendo plazatik abiatuta.

12:00etan, Ondo ibili paseo osasungarria, Antonio Mercero gunetik abiatuta.

17:00etan, bideoforuma, Biyak Baten egoitzan.

Okendo plaza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Jaiak

Sasoeta auzoko jaiak hasiko dira. Hau da egitaraua:

18:00etan, txupinazoa eta pregoia, Andatza plazan.

18:00etan, kirol jarduerak, Uzturre plazan.

19:00etan, *Ostirintxo* pintxo potea, taberna hauetan: Buggy, Mostatxo, 2KN, Txoko eta Jaizkibel.

19:00etan, txiki diskoa, Andatza.

20:00etan, txokolate jana, Andatza.

20:00etan, Radio Rebelde Covers-en kontzertua, Jaizkibel plazan.

23:00etan, zezensuzkoa, Andatza.

23:30etan, DJ Nemux, Andatza.
Andatza plaza, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Festa

Zabaletako auzotarrek Udazken Festa ospatuko dute.

18:30etan, mural bat margotuko dute.

19:30etik aurrera, afari merienda egingo dute (sardinak, txorizoa...). Samba Badago taldeak zuzeneko kontzertu bat emango du.

Basotxo plaza, 18:30etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Las chicas están bien* filma emango du. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 7

LASARTE-ORIA Jaiak

Sasoeta auzoko jaietako bigarren eguna aurrera eramango dute.

11:00etan, tailer eta jokoak, Jaizkibel plazan.



LASARTE-ORIA Jaiak

Egitarau "oparoa eta parte hartzailea" prestatu dute Sasoeta auzoko jaiak ospatzeko: txupinazoa, zuzeneko kontzertuak, helduen zein haurren danborradak, bazkari herrikoia, tailer eta jokoak, eta abar.

Hilaren 6tik 8ra, Sasoeta auzoan zehar.

11:30etan, futbolen txapelketa, Jaizkibelen.

12:00etan, erraldoi eta buruhandien kalejira, auzoan zehar.

14:30etan, herri bazkaria, Andatza.

16:00etan, bazkalosteko txapelketak: mus (Txoko taberna), igela (Txindoki taberna) eta xakea (Andatza plaza).

17:00etan, zunba saioa, Andatza.

18:00etatik aurrera, pintxo potea, auzo elkartearen tabernan.

18:30etan, helduen danborrada, Andatza plazatik abiatuta.

22:30etan, 40 de fiebre taldeko kide ohi Juan Mari Cerezoren omenaldi kontzertua, Andatza.

23:00etan, zezensuzkoa, Andatza.

23:15etan, The Noise Makers taldearen kontzertua, Andatza.

00:30etan, DJ Nemuxen eskutik 80. hamarkadako musikan girotutako gaua, Andatza.

Jaizkibel plaza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Txapelketa

Lasarteko Zirkuituaren mendeurrenaren harira, I. Auto Txapelketa Digitala jokatuko dute.
Kultur etxea, 11:15etan.

LASARTE-ORIA Antzerkia

Urteak bete abenturak bizi antzezlanaren emanaldia egingo dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek. Sarrerek, agortuta.
Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 8

LASARTE-ORIA Jaiak

Sasoetako jaiak, azken eguna.

11:00etan, puzgarriak.

12:00etan, erraldoi eta buruhandien kalejira, auzoan zehar.

12:30etan, patata tortilla txapelketa.

17:00etan, haurren danborrada.

18:00etan, errifen zozketa eta sari banaketa.

18:30etan, amaierako traka.

Andatza plaza, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Omenaldia

Adinekoen Omenaldi Astearen azken eguna.

10:40etan, kalejira.

11:00etan, meza, Brigitarren komentuan.

12:00etan, urrezko ezteiak bete dituztenei omenaldia. Ondoren, bazkaria eta dantzaldia.

Biyak Bat egoitza, 10:40etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Superheroiaren familia filma emango dute, haurrentzat. Sarrerek, 4 eurotan.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

La voz del sol pelikula proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30etan.

S CHICAS ESTÁN BIEN



LABURPENA

'Las chicas están bien'

Zuzendaria: Itsaso Arana. **Gidoia:** Itsaso Arana. **Argazkia:** Sara Gallego. **Ekoizleak:** Los Ilusos Films, Elastica Films. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Iraupena:** 85 minutu. **Generoa:** Drama.

Aktoreak: Barbara Lennie, Irene Escolar, Itsaso Arana, Itziar Manero, Helena Ezquerro, Gonzalo Herrero.

Pertsonak ezagutu, pertsonaien bidez

Lau aktore eta idazle bat haize errota zahar batean elkartuko dira, hirigunetik urrun, antzezlan bat entseatzeko hasteko. Sorginkeria baten istorioa biziko dute zapo, ibai, eskutitz eta baita printze despistatu batekin ere. Entseatu ahala, antzezlan horrek jasotzen dituen elementuen bidez elkar ezagutuko dute bost

protagonistek eta bakoitzak interpretatu behar duen pertsonaien araberako bizipenak partekatuko dituzte, hala nola, maitasuna, edertasuna, laguntasuna edota heriotza.

Itsaso Arana zuzendari nafarraren lehenengo film luzea da *Las chicas están bien*. Karlovy Vary zinema festibalean pelikula onenaren izendapena jaso du.

ASTEAZKENA 11

LASARTE-ORIA Opera

Giuseppe Verdi konpositore klasikoaren *Aida* operaren emanaldi digitala egingo dute Danok Kide elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerek-aren eros daitezke.

Kultur etxea, 19:30etan.

OSTEGUNA 12

LASARTE-ORIA Erakusketa

Javier Solerrek *Sonidos en el recuerdo* erakusketa zabalduko du. Hilaren 22ra arte ikusi ahal izango dute herritarrek, doan: astegunetan, 18:00etatik 20:30era, eta, jaegunetan, 11:00etatik 13:00etara.

Antonio Mercero aretoa, hilaren 12tik 22ra.

OSTIRALA 13

LASARTE-ORIA Emanaldia

Cadizeko txirigotak ekarriko dituzte herrira Bi Kolorete Kultura Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak: La Chirigota de Fermin y Antoñito, La Chirigota del Bizcocho eta Cuarteto del Gago. Sarrerek 14 euro balio dute; kultur etxeko leihatilan edo Kutxabank Sarrerek-aren eros daitezke. Ikuskizunak bi ordu eta erdi iraungo ditu.

Kultur etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 14

LASARTE-ORIA Antzerkia

Pez Limbo konpainiak *Itas behera* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerek-aren eros daitezke.

Kultur etxea, 20:00etan.



txintxarri 30 urte!

2023 - 10 - 06 OSTIRALA



ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

www.oriarte.eus



Landaberri eraikina DBH 1-2

Zorionak! txintxarri 30 urte!

Elkarlanean, ikasle gazteen irakurzaletasuna sustatuz!



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa

Muntteri AEK euskaltegia

Geltoki kalea, 17, behea • 20160 Lasarte-Oria
607 62 52 33 - lasarte@aek.eus
www.muntteri.blogspot.com.es



Beste 30 urtez euskaraz elkarrekin!

Zorionak! txintxarri

aek

euskara praktikoa



ZORIONAK
txintxarri

Kalitate goreneko eta bertako produktuekin etxean egindako janaria!

- EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUA
- PINTXOAK ETA ERRAZIOAK
- GARAGARDO ETA EDARI ALKOHOLDUNAK
ETA ALKOHOLIK GABEKOAK

HIPODROMO ETORBIDEA 2, LASARTE-ORIA TEL: 943-36 27 09



YON MIKEL RODRIGUEZ



Eman izena urriaren 31 baino lehen:

Ttakun Kultur Elkarte | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89

solaskide
Mintza
POZA
PRAKTIKATU

